# BESTELAKO XEDAPENAK

## OSASUN SAILA

## 4677

*EBAZPENA, 2016ko urriaren 25ekoa, Osasuneko sailburuordearena, osasun-arloko profesionalak prestatzeko bekak eta laguntzak emateko dena.*

Osasuneko sailburuaren 2016ko maiatzaren 31ko Aginduaren bidez (2016ko uztailaren 1eko EHAA), osasun-arloko profesionalak prestatzeko beka eta laguntzetarako deialdia egin zen, 108.010 euroko zuzkidura izanik.

Agindu horren 14. artikuluan ezartzen denez, bekak eta laguntzak eskuratzeko eskabideak Osasuneko sailburuordeak ebatziko ditu, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratutako ebazpen baten bitartez; betiere, Osasuneko sailburuak horretarako berariaz izendatutako balorazio-batzordeak proposatutakoa aintzat hartuta.

Deialdia egiteko aginduan jasotako bekek edo laguntzek ez dute zertan egon behar pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko foru-arauen 9. artikuluko 9. zenbakian (hau da, bekei buruzko atalean) aurreikusitako salbuespen-eremuan (Araba, 33/2013 Foru Araua; Bizkaia, 13/2013 Foru Araua; Gipuzkoa, 3/2014 Foru Araua).

Hori guztia kontuan izanik, deialdira bildutako eskabideak aztertuta, eta balorazio-batzordeak proposatutakoa aintzat hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osasun-arloko profesionalak prestatzeko bekak eta laguntzak ematea I. eranskinean adierazten diren pertsonei, bertan zehazten den diru-kopurukoak.

Bigarrena.– II. eranskinean zerrendatutako pertsonen eskaerak ezestea, bertan zehaztutako arrazoiengatik.

Hirugarrena.– Beka eta laguntzen deialdi honetarako eskatutako aurrekontu-kreditu guztia erabili ez denez –13.471 euroko soberakina geratu da–, zera proposatzen da: zenbateko hori lana osasunaren arloan egiten duten irabazi-asmorik gabeko erakunde zientifikoei eta osasun-profesionalen elkargo ofizialei zuzendutako beste deialdi batera bideratzea, elkarte horien 2016ko funtzionamendu-gastuetarako eta langileentzako etengabeko prestakuntzaren gastuetarako.

Laugarrena.– Honako ebazpen honek ez du administrazio-bidea ixten, eta, beraz, honen aurka interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez dezakete Osasuneko sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena EHAAn argitaratzen denetik hasita, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak moldatutako azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera. Horretaz gainera, ongi iritzitako beste edozein lege-akzio ere erabil dezakete interesdunek.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 25a.

Osasuneko sailburuordea,
GUILLERMO VIÑEGRA GARCÍA.

# I. ERANSKINA

## ONARTUTAKO BEKA ETA LAGUNTZEN ZERRENDA

## ATZERRIKO ZENTROETAN IKASTAROAK ETA EGONALDIAK EGITEKO BEKAK ETA LAGUNTZAK

| | | BEKA | | LAGUNTZA | | | | ZENBATEKOA, GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| NAN | Prestakuntza-jarduera | Mantenua | Familia-gastuak | Matrikula | Joan-etorriak | Ostatua | Bestelakoak | Zenbatekoa, guztira |
| 44144685A | Urdaileko minbiziaren jatorriaren eta bilakaeraren kausak identifikatzea. Universidade Sao Francisco. Sao Paulo (Brasil) | 2.000 | | | 1.750 | 2.000 | | 5.750 |
| 44621460B | Brainhack Viena 2016 Reliability and Reproducibility in Connectomics. Impact Hub Viena (Viena-Austria) | | | 150 | 300 | 150 | | 600 |
| 78912948V | Nerabezaroaren aurretik minbizia duten gizonezkoek ugalkortasuna mantentzea. Leiden University Medical Center. Leiden (Herbehereak) | 3.000 | | | 2.000 | 3.000 | | 8.000 |
| 44173199C | Leuzemia akutuak fluxu-zitometria bidez diagnostikatzeko protokoloaren ikerketa: Pronostikorako biomarkatzaile berrien karakterizazioa. Bordeleko Unibertsitatea (Frantzia) | | | | 750 | 1.250 | | 2.000 |
| 16018411S | Clinical Observer in Polyposis, Family Cancer, Endoscopy and Hereditary Center Surgery. Saint Mark's Ospitalea, Londres | | | 1.620 | 400 | 1.000 | | 3.020 |
| | Atzerriko zentroetan ikastaroak eta egonaldiak egiteko bekak eta laguntzak, GUZTIRA | | | | | | | 19.370 |

OSASUN-KUDEAKETAKO GAITASUNA ESKURATZEKO ESTATUKO ZENTROETAN EGINDAKO PRESTAKUNTZA-JARDUERAK EGITEKO BEKAK ETA LAGUNTZAK.

| | | BEKA | | LAGUNTZA | | | | ZENBATEKOA, GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| NAN | Prestakuntza-jarduera | Mantenua | Familia-gastuak | Matrikula | Joan-etorriak | Ostatua | Bestelakoak | Zenbatekoa, guztira |
| 72825326N | Erizaintzan Autozaintzaren Ezagutza Kudeatu eta Aplikatzeko Unibertsitate Masterra. Alcalá de Henareseko Unibertsitatea (Madril) | | | 3.510 | 1.800 | 360 | 211 | 5.881 |
| 15255261M | Osasunaren Ekonomiako Unibertsitate Masterra (Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa) | | | 3.820 | | | | 3.820 |
| 72543665D | Big Data Science-eko Master Exekutiboa. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa | | | 8.280 | | | | 8.280 |
| 78913247V | I+G+b-ko Nazioarteko Proiektuak Kudeatzeko Ikastaro Aurreratua. Innobasque (Zamudio, Bizkaia) | | | 605 | 60 | | | 665 |
| 78913247V | Ikerketa-proiektu bat egiteko ikastaroa. Andaluziako Osasun Publikoaren Eskola (Granada) | | | 600 | 327 | 175 | | 1.102 |
| 79369181E | Berrikuspen bibliografikoen metodologiari eta idazkera zientifikoari buruzko ikastaroa. Andaluziako Osasun Publikoaren Eskola (Granada) | | | 800 | | | | 800 |
| 72488330N | Osasun Zientzietarako Estatistikako Diplomatura (10. eta 11. moduluak).<br>Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa | | | 2.469 | 240 | 700 | | 3.409 |
| 44683470J | Farmakoepidemiologia eta Farmakozaintzako Masterra. Alcalá de Henareseko Unibertsitatea - Madril | | | 3.960 | | | | 3.960 |

| | | BEKA | | LAGUNTZA | | | | ZENBATEKOA, GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| NAN | Prestakuntza-jarduera | Mantenua | Familia-gastuak | Matrikula | Joan-etorriak | Ostatua | Bestelakoak | Zenbatekoa, guztira |
| 72540379N | Saiakuntza Klinikoen Ikastaroa (XIII. edizioa). Sevillako Unibertsitatea | | | 2.236 | | | | 2.236 |
| 78894340Q | Big Data eta Business Intelligence Programa Ikastaroa. Deustuko Unibertsitatea | | | 7.200 | | | | 7.200 |
| 72256049P | Aho-hortzen Osasun Komunitarioko Espezializazioko Diploma. Sevillako Unibertsitatea | | | 1.041 | | | | 1.041 |
| 14265899B | Osasunaren eta Sendagaien Ekonomiako *online* Masterra. Pompeu Fabra Unibertsitatea (Bartzelona) | | | 3.820 | | | | 3.820 |
| 44676195Y | Zahartze Osasuntsuko eta Bizi Kalitateko online Masterra. Leongo Unibertsitatea | | | 5.591 | | | | 5.591 |
| 16070820F | Osasun Mentalaren Kudeaketa Kliniko eta Sanitarioko Masterra. Pablo de Olavide Unibertsitatea (Sevilla) | | | 1.950 | | | | 1.950 |
| 78914391B | Ikerketaren Metodologiari buruzko Ikastaroa. OMC. Prestakuntzarako Fundazioa. Madril | | | 501 | | | | 501 |
| 20176545W | Erizaintzako Zerbitzuen Kudeaketa. Unibertsitateko Aditu Diploma. UNED (Madril) | | | 1.020 | | | | 1.020 |
| 45751032F | Erizaintzako Unitateak Zuzendu eta Kudeatzeko Unibertsitate Masterra. Errioxako Unibertsitatea | | | 4.200 | 500 | | | 4.700 |

| | | BEKA | | LAGUNTZA | | | | ZENBATEKOA, GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| NAN | Prestakuntza-jarduera | Mantenua | Familia-gastuak | Matrikula | Joan-etorriak | Ostatua | Bestelakoak | Zenbatekoa, guztira |
| 45753596H | Erizaintzako Unitateak Zuzendu eta Kudeatzeko Unibertsitate Masterra. Errioxako Unibertsitatea | | | 4.200 | 500 | | | 4.700 |
| 44553098M | Biomedikuntzako Ingeniaritzako Masterra - Biodonostia institutua - Irun (Gipuzkoa) | | | 3.950 | | | | 3.950 |
| 72393531L | Osasungintzako Zainketen Ikerketako Unibertsitate Masterra.<br>Kantabriako Unibertsitatea | | | 2.817 | | | | 2.817 |
| | Osasun-kudeaketako gaitasuna eskuratzeko Estatuko zentroetan egindako prestakuntza-jarduerak egiteko bekak eta laguntzak, GUZTIRA | | | | | | | 67.443 |

## II. ERANSKINA

## EZETSITAKO ESKAEREN ZERRENDA

| NAN | Prestakuntza-jarduera | Ez onartzeko arrazoia |
|---|---|---|
| 45666651J | Giza Baliabideen Unibertsitate Masterra: talentua nola antolatu, planifikatu eta kudeatu | Jarduera 2016an hasten ez delako (deialdia egiteko aginduaren 1. artikulua). |
| 78920222T | Ebakuntza-gelako Erizaintzako Aditu-ikastaroa: Anestesia eta Bizkorketa. | Jarduera 2016an hasten ez delako (deialdia egiteko aginduaren 1. artikulua). |
| 72755932D | Komunikazio eta Osasuneko *online* Masterra | Diru-laguntzaren xede den jarduera ez da biltzen deialdia egiten duen aginduaren 1. artikuluan jasotako diru-laguntzen eremuan (ikastaro edo egonaldia ez da atzerrian egingo, edota ikasketa ez da estatuko zentroetan egiteko osasun-kudeaketakoa edo osasun publikokoa). |
| 18596230V | Erizaintzako Kudeaketa Klinikoko Espezializazioko Diploma | Jarduera ez da 2016an hasten (deialdia egiten duen aginduaren 1. artikulua). |
| 16075915L | Erizaintzarako Farmakoterapiako Masterra | Jarduera ez da 2016an hasten (deialdia egiten duen aginduaren 1. artikulua). |
| 52622314Q | Zainketa Aringarrien Arreta Integraleko Masterra | Diru-laguntzaren xede den jarduera ez da biltzen deialdia egiten duen aginduaren 1. artikuluan jasotako diru-laguntzen eremuan (ikastaro edo egonaldia ez da atzerrian egingo, edota ikasketa ez da estatuko zentroetan egiteko osasun-kudeaketakoa edo osasun publikokoa). |
| 16089744W | Urgentzia eta Larrialdien arloko Unibertsitate-adituaren Ikastaroa | Diru-laguntzaren xede den jarduera ez da biltzen deialdia egiten duen aginduaren 1. artikuluan jasotako diru-laguntzen eremuan (ikastaro edo egonaldia ez da atzerrian egingo, edota ikasketa ez da estatuko zentroetan egiteko osasun-kudeaketakoa edo osasun publikokoa). |
| 441393360Z | Ospitaleko Kudeaketako eta Osasun-zerbitzuetako Masterra | Beka eskatzen duen pertsona ez dago deialdiaren sarreran definitutako diru-laguntzen esparruan (Osasun-langileen gaikuntza profesionala beren jardun profesionalean). |

| NAN | Prestakuntza-jarduera | Ez onartzeko arrazoia |
|---|---|---|
| 78884081S | Interbentzioetako Hemodinamika eta Kardiologiako Erizaintzako Masterra | Diru-laguntzaren xede den jarduera ez da biltzen deialdia egiten duen aginduaren 1. artikuluan jasotako diru-laguntzen eremuan (ikastaro edo egonaldia ez da atzerrian egingo, edota ikasketa ez da estatuko zentroetan egiteko osasun-kudeaketakoa edo osasun publikokoa). |
| 16075809M | Aurrez aurreko ingeleseko ikastaro aurreratua | Diru-laguntzaren xede den jarduera ez da biltzen deialdia egiten duen aginduaren 1. artikuluan jasotako diru-laguntzen eremuan (ikastaro edo egonaldia ez da atzerrian egingo, edota ikasketa ez da estatuko zentroetan egiteko osasun-kudeaketakoa edo osasun publikokoa). |
| Y1399055W | «International VATS Conference and Meeting» jardunaldira joatea - Shanghai (Txina). | Jarduera ez da 2016an hasten (deialdia egiten duen aginduaren 1. artikulua). |
| 71507255W | *A. baumanni* multierresistentearen karakterizaziorako teknika molekularren garapena, Koloniako Unibertsitatean. | Jarduera ez da 2016an hasten (deialdia egiten duen aginduaren 1. artikulua). |
| 72508624C | «Tissue Repair, Regeneration and Fibrosis» nazioarteko kongresua joatea - Rodas (Grezia) | Diru-laguntzaren xede den jarduera ez da biltzen deialdia egiten duen aginduaren 1. artikuluan jasotako diru-laguntzen eremuan (ikastaro edo egonaldia ez da atzerrian egingo, edota ikasketa ez da estatuko zentroetan egiteko osasun-kudeaketakoa edo osasun publikokoa). |
| 72399889Y | «Epigenetics and Human Disease» sinposiora joatea - Silverthorne (AEB) | Diru-laguntzaren xede den jarduera ez da biltzen deialdia egiten duen aginduaren 1. artikuluan jasotako diru-laguntzen eremuan (ikastaro edo egonaldia ez da atzerrian egingo, edota ikasketa ez da estatuko zentroetan egiteko osasun-kudeaketakoa edo osasun publikokoa). |
| 79369181E | Osasun Zientzietako Ikerketaren Metodologiako Masterra | Jarduera ez da 2016an hasten (deialdia egiten duen aginduaren 1. artikulua). |